

# ikastola



**IKASTOLAK KEZKATUTA,  
JAURLARITZAKO HEZKUNTZA  
SAILAK IRAGARRITAKO  
ALDAKETEKIN**





Erreferentziako txartela: Finantza-txartelen erraztasun guztiekin eta gainera...

Bidaia-asistentziako doako aseguruabantailak era guztietako 2.000 establezimendutan.

Deskontuak mundu osoan izateko giltza.

Kontsultatu BBK26 gida, [www.bbk.es](http://www.bbk.es)

orrian

3 ELKARRIZKETA: KOLDO TELLITU, IMANOL IGEREGI ETA ABEL ARIZNABARRETA REKIN SOLASEAN

10 ERREPORTAJEA: LANBIDE HEZIKETA, IBILBIDE LUZEKO BIDEA

12 KRISI GARIAIN ERE GUREKIN

14 EUSKARAREN GOTORLEKUA EBRO ERTZEAN

16 OLENTZERORI ESKATZEKO MODUKO LAU OPARI

18 GIEK 40. URTEMUGA OSPATU DU

20 SEASKAREN 40 URTEKO HISTORIA LIBURUAN

22 URREZKO Q ETA NAFARROAKO ENPRESA BIKAINENAREN SARIA LIZARRARENTZAT

EDITATZAILA: IKASTOLEN KONFEDERAZIOA  
Zamudioko Teknologia Elkarteak, 208 B-1  
48170 ZAMUDIO  
Tel.: 906 33 41 45

KOORDINATZAILA: Zuriñe Mendizabal  
aldizkaria@ikastola.net

ERREDAKZIOA: Joxean Agirre eta Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILA: Imanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILA: GERTU Inprimategia  
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

ISBN: Ikastolen Konfederazioa, 84/933872/66

ABENDUA 2009



ELKARRIZKETA

**Koldo Tellitu, Imanol Igeregi eta Abel Ariznabarreta**

**Jaurlaritzak iragarritako aldaketen harira**

**“Alerta aktiboan, erne mantendu beharra daukagu”.**



KOLDO TELLITU, IMANOL IGEREGI ETA ABEL ARIZNABARRETA, EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK EUROPAR KOOPERATIBAKO LEHENDAKARIA, ZUZENDARIA ETA PEDAGOGI ARDURADUNA, HURRENEZ HURREN, XABIER OLEAGA ELKARRIZKETAZAILAREKIN BATERA.

Ikastolak kezkatuta daude Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradun berriek iragarri dituzten aldaketekin. Kezkatuta, aurreko arduradunen azken dekretuari egin nahi dizkioten aldaketekin, eta hauek justifikatzeko erabili duten diskurtso publikoarekin. Eta horrekin batera, 2010erako aurrekontuetan erabiltzen ari diren irizpideekin. Kezka horren nondik norakoak IKASTOLA aldizkarira ekartzea deliberatu zuen gure kooperatiba europar sortu berriko Artezkaritza Kontseiluak azaroko bileran. • Horren ondorioa da jarraian datorren elkarrizketa, non Koldo Tellituk, Imanol Igeregi eta Abel Ariznabarretak erantzuten dieten

Xabier Oleagak jarritako galderari. > >



**ATZERAPAUSSA EGITEKO BIDEAN EGON GAITEZKE, DUELA HAMABOST URTE ZEIN PROZESU ESTATUTARIO OSOAN LORTUTAKO KONTSENSU HISTORIKOEKIKO.**

dekretu honek ona egiten duela aurrekoa. Berez, aurreko sailburuak ateratako dekretuaz esan genuen norabide onean egindako aurrerapausoa zela, baina ez asebetetzen gintuenik. Ezaguna den moduan, ikastolak hezkuntzako beste eragile sozial batzuekin batera curriculum proiektu propioa landu dugu, inoiz inolako curriculum proiektuk lortu duen kontsentsu mailarik handienarekin. Berrogeita hamar talde desberdinekin parte eta konpromisoa hartu dute, hezkuntza sare desberdinetakoek. Gure proiektu hau askoz aberatsagoa eta anbizioagoa da orduko Hezkuntza Sailaren dekretua baino. Pentsa non gertatzen den orain iragartzen duten beste hau!

*Eta mamiari dagokionez, zerk kezkatzen zaituzte?* Atal desberdinek kezkatzen gaituzte. Eus-

**Z**er deritzezue Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dekretu bidez egin asmo dituen aldaketei? Dekretu bidez esan duzu, eta justu horretan erreparatu nahi dugu, hasteko. Gaur egun Hezkuntza Sailaren ardura daukatenek kritikatu egin zuten, oposizioan zeudenean, aurreko sailburuak dekretu bidez sartu nahi izatea proposatu nahi zituen aldaketak. Orain eurak gauza bera egitera doaz, eta gainera agrabante garrantzitsu batekin: aurrekoaren aldaketak dekretu bidez egin ziren, baina proposamena lehenago hezkuntzako eragile sozialekin landu zen,

besteak beste gurekin, ikastolekin. Oraingoan ez dute horrelakorik egin.

*Eta mamiari dagokionean?* Oso kezkatuta gaudete. Atzerapausoa egiteko bidean egon gaitezke. Ez bakarrik aldatu nahi den dekretuarekiko, baizik eta duela 15 urte lotutako kontsentsuekiko eta, estutzen banauzu, euskararen inguruan lortutako kontsentsu estatutario historikoekiko ere bai. Eta erne egon beharra daukagu. Baina mamiari zehazki heldu aurretik utz diezadazu mami bera bezain kezagarria den beste zerbaiti buruz oharpen bat egiten: aldaketak iragartzeko erabili den estalkiari, diskurtsoari.

*Gogorra iruditu zaizue?* Argi gorria piztu zaigu. Doktrinarismoaz hitz egin da, inposizioaz hitz

egin da. Sentimenduak jarri dira lehen planoan. Oposizio alderdiaren diskurtsoa egin dute, agintean daudela ahaztuta. Diskurtso ideologizatua egin dute. Paradoxikoa, baina adierazgarria. Eztabaida lasaia eta sakona ahalbidetzea dagokio gobernuan dagoenari, eta txingar epelari gasolina bota diote. Eta ondoren ez dugu damurik antzeman. Erne egon beharra daukagu.

*Zer esan nahi duzue erne egote horrekin?* Ezin diegula utzi bide horretatik joaten modu akritikoan. Jarrera kritikorako lanabesak gordetzen ditugun kutzari hautsa kendu behar diegula, lanabesen artean bat ere baztertu gabe. Ardurak dauzlagunon kezka kolektibizatu egin behar ditugu, etxe barruan zein kanpoan, eta talde moduan erantzun, gu geu taldean eta beste talde

batzuekin batera. Talde moduan erantzun, diogu, eta ez taldearen izenean bakarrik.

*Hala ere, asteotan hitz egiteko aukera ireki ditzue Hezkuntza Sailak.* Hori bakarrik falta zen, alegia, aukera hori gabe geratzea! Zorionez, hitz egiteko aukera badaukagu, eta horrela den artean beti dago esperantzaren leihoa zabalik. Esperantza, gauzak zuzentzeko, hain juxtu ere. Guk elkarrizketan, aldeanitzeko elkarrizketan, eta kontsentsuan, sinesten dugu, beti bezala orain ere. Baina zuzenketa neurriak hartuta ere, gertatutakoa adierazle iraunkorra da.

*Dekretu aldaketak egoera honetara eramanda duek kontuan hartuta, aurreko dekretuarekin ados zineten, beraz?* Eman lezake orain iragartzen den

karari dagokionean, aurrekoan euskara lehenesteko borondatea esplizituki artikulatua azaltzen zen eta horrekin batera neurri zehatzak ezartzen ziren. Zuzena, guztiz zuzena, euskararen egoera diglosikoa kontuan hartuta. Orain desagertu egin dira bai borondate esplizitua baita neurri zehatzak. Gaztelaren eta euskararen paretotasuna egun errealitate balitz bezala aurkezten da, eta ondorioz euskararen aldeko diskriminazioa gaitzesten. Hona hemen adierazle argigarri bat: dekretu eraldatua datorren bezala, eta zuzenketarik egiten ez bazaio, euskara izango litzateke ikasgai bakarra eskolaratze amaierarako helbururik ezarrita izango ez lukeena.

**Azal dezakezue azken hau apur bat gehiago?** Matematikarako, Literaturarako, Geografiarako, Historiarako, Gaztelarako... eskolaldiaren amaierarako helburuak finkatuta daude. Euskararako ez. Ikasgai bakarra izango litzateke egoera horretan. Aurreko



**OPOSIZIOKO ALDERDIAREN DISKURTSOA EGIN DUTE, AGINTEAN DAUDELA AHAZTUTA, ETA GEROZTIK EZ DUTE DAMURIK AZALDU.**

**JARRERA KRITIKORAKO LANABESAK GORDETZEN DITUGUN KUTXARI HAUTSA KENDU BEHAR DIOGU, LANABESEN ARTEAN BAT ERE BAZTERTU GABE.**



dekretuan ezarrita zegoen helburu bat. Hobe edo txarragoa izan, Europa mailan ezarritako hizkuntza gaitasuna finkatzeko neurgailu estandarra zen. Kendu egin dute eta ez dute ordetzorik proposatzen. Bestalde, helbururik finkatzen ez denez, ez da proposatzen ikas-etapa desberdinetarako ebaluazio neurrikerik ere, helburua betetzen ari den ala ez ezagutu ahal izateko eta emaitzen arabera zuzenketa neurriak oinarri batekin hartu ahal izateko.

**Beste atal garrantzitsuren bat?** Euskal Herria kontzeptuarena dago hor. 1994an Euskal Eskola

Publikoaren legearen harira landu zen curriculumean Euskal Herria kontzeptua, definizio maila zehatzago edo irekiago batean, etengabe azaltzen da. Gehiago esango dizut, pasarte zehatz batean Euskal Herria eta ertaroko Nafarroako Erreinua lotzen dira. Orain ia desagertu egin da.

**Garai hartako Hezkuntza Saila, ez al zegoen PSOE-PSE-EE alderdiaren eskuetan?** Hala da. Eta Isabel Celaia zen sailburuordea, justu curriculum horren edukiaren arduradun zuzena. Eta esaten ari dira koiuntura politikoak gaitzertuko dituen egokitzapen egonkorra egin behar direla, Hezkuntza komunitatea eta gizartea bera etengabeko izuan, noraezan, ibili ez dadin. Irizpide horren kariatara, zein sinesgarritasun eman behar zaio jokamolde honi!

**Euskal Herria kontzeptua kulturari eta hizkuntzari bakarrik lotua omen da.** Gutxitan egin izan da itxura hain zientifikoan baieztapen azientifikoagorik. Interes ideologiko partidistatik gehiago dauka hezkuntza pentsamendutik baino. Euskal Herria kontzeptua, kultura eta hizkuntzaz batera, ez al dago lur eremu bati lotua? Ez al dago lur eremu horretan kokaturiko unean uneko gizarte zehatz bati eta bere jardun integralari lotua, jarraipen historiko eta guzti? Komunitate administratiboak, komunitate politikoak, dira bakarrik objektibagarriak? Eta nola deituko diogu Euskadi kontzeptuaren aurreko euskal errealitateari, nola deituko Euskadiko Autonomi Erkidegoa sortu aurretiko euskal errealitate integralari, alegia, lurra, jendartea, hizkuntza eta

kultura konpartitua eta historia luzean iraun izana biltzen duen horri? Ez al dago komunitate politiko eta administratiboaren aurretikoa den beste zerbait, komunitate horien aldakortasun historikoaren gainetik iraunkorra dena?

**Zein eragin izan dezakete aldaketa hauek ikasletoetan?** Ikastolen ibilmoldearen ezaugarrietako bat autonomia da. Autonomia horren ize-nean, Hezkuntza Administrazioak ezartzen dituen oinarriko betebeharrak asetzen ditugun bitartean, eta horiekin kontraesanean jarri gabe, guk ezarri ditzakegu geure eduki kurrikularrak eta finkatu geure plan pedagogiko propioak. Orain arte bezala aurrerantzean ere horrela jarraitzeko asmoa daukagu.

**Horretaz, ez dago beraz kezkatu beharrik?** Ez, hezkuntza administrazioetik arau estuak ezarri eta politika fiskalizatzaile zorrotza garatzen ez den bitartean. Ez dugu pentsatu nahi Hezkuntza Administrazioari arduradun berriak horretan eroriko direnik. Bestalde, gure hezkuntza ildoak arrakastarako gaitasun integrala adierazi du, norbaitek adierazteko. Ez dugu pentsatu nahi inor hori kuestionatzen ausartuko denik.

**Zuen kezka, adierazitako atal horietara mugatzen dira?** Ez, zoritxarrez. Horiek ikusgarrienak izango lirateke, iragarri diren dekretu-aldaketei begira. Bada, ordea, beste kapitulu batean pareko zantzuak egiaztatzen dituen adierazlerik ere. 2010eko aurrekontuez hitz eginen ari gara. Arretaz aztertu dugu proposamen mardula, oro har zein Hezkuntzari dagokionean, eta euskararen garapenera bideratutako partidek bereziki murrizketa pairatzen dute.

**Eta finantzazioaren alorrean sartu gavelarik, beste atal deigarrikerik?** Bai. Denok dakigu krisi ekonomikoan murgilduta gaudela, eta horrek murrizketa dakarrela. Baina hezkuntza sistemaren gestio ekitaliboak eskatuko luke murrizketak ere denon artean banatzea, eta ez parte batek bakarrik

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAREN HARIRA LANDU ZEN CURRÍCULUMEAN EUSKAL HERRIA KONTZÉPTUA ETENGABE AZALTZEN DA.**

**EUSKARA DA ESKOLALDIAREN AMAIERARAKO HELBURURIK GABE AZALTZEN DEN GAI BAKARRA.**

**AURREKONTUETAN, HEZKUNTZARI DAGOKIONEAN, EUSKARAREN GARAPENERA BIDERATUTAKO PARTIDEK BEREZIKI MURRIZKETA PAIRATZEN DUTE.**



pairatzea, gure kasuan sare kontzertatuak. Ondo dago ekitatearen izenean hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleenganako politikan konpromisoa deno eskatzea, esate baterako, finantziarioa ere gero deno ematen bazaigu. Konpromiso berdinekiko finantzazio berdina, diogu guk. Eta ez dago halakorik aurrekontu hauetan. Bestalde, guk lehengo gobernuarekin hasitako finantzazio-ildoari jarraipena eman nahi genioke. Ez dakigu lortuko dugun. Horrekin batera, giza baliabideak finantzatzeko politika bat ere landu nahiko genuke. Ondo dago eleaniztasunari, teknologia berrien aplikazioari, dibertsifikazioari, lehentasuna eman nahi izatea, baina ez hasierako inbertsioetan bakarrik, baizik eta geroko garapenak eskatzen duen giza baliabideetan ere bai.

**Ikuspegi iluma, beraz?** Ikuspegi iluna baino gehiago, egoera kezkarria, aspaldiko urteetan ez bezalakoa. Gu saiatuko gara elkarriketaren bidez egoerari buelta ematen. Eta egia esan pantailako diskurtso gordinarekin batera lan-mahaian mintzakide arretatsua azaldu zaigu hezkuntza administrazioa. Baina alerta aktiboan, erne mantendu beharra daukagu. [Ikuspegi iluma](#)

**ESTADO DE ALARMA ACTIVA**

Hay preocupación en las ikastolas por el giro que va adoptando la nueva administración educativa del Gobierno Vasco, hoy en manos del PSOE-PSE-EE, según manifiestan los responsables de la cooperativa europea de ikastolas en la presente entrevista. Consideran que es necesario "declarar el estado de alarma activa". La situación tiene su origen en los cambios anunciados para el decreto del anterior gobierno

en materia curricular. Los criterios aplicados en el ámbito del euskara y en la utilización del concepto de Euskal Herria, son los aspectos más visibles del desacuerdo, junto con el discurso político desplegado por los responsables del Departamento al hilo de estos cambios. Los entrevistados consideran que podría haber "un retroceso en los consensos históricos alcanzados en estas materias".

**L'HEURE EST GRAVE**

Dans cet entretien, les responsables de la coopérative européenne font état de la préoccupation des ikastola quant au positionnement de la nouvelle administration éducative du Gouvernement Basque, aujourd'hui aux mains de la tripartite PSOE-PSE-EE. Selon eux "l'heure est grave". Cette préoccupation est la conséquence de la modification du décret sur l'enseignement pris par l'ancien gouvernement. Les points comme la

langue basque et l'utilisation du concept Euskal Herria sont les plus significatifs du désaccord entre les ikastola et Gouvernement Basque. Et le discours politique tenu par les responsables du Département Education n'est pas fait pour rassurer les responsables des ikastola. Ils considèrent que ce pourrait être "un pas en arrière dans les consensus historiques obtenus dans le domaine de l'enseignement".

# LANBIDE HEZIKETA

IBILBIDE LUZEKO BIDEA

Ikasle kopuru handi batek egiten du unibertsitatera jauzia

Ibilbide luzeko bidea da Lanbide Heziketarena. Goi zikloak egiten dituzten ikasleetatik %30 inguru da unibertsitatera jauzia egiten duena. Bestalde, ez dira gutxi ziklo horiek egin ondoren enpresa propioak sortzen dituztenak ere. Eta lan munduratze tasak ere lizentziadunenak baino altuagoak dira. Aukera horien berri erakusten duten kasuak bilatu ditugu.

**L**ANBIDE HEZIKETAN GOI ZIKLO BAT EGIN ETA UNIBERTSITATERAKO JAUZIA EGITEN DUTENEN KOPURUA GURASO ASKO USTE DUTENA BAINO ALTUAGOA DA. "Guk, esate baterako, Inmakuladan goi zikloak egiten dituzten 25 ikasleetatik zortzi bat Erizaintza ikastera bidaltzen ditugu, eta bat edo beste oso onak ikusten baditugu, Medikuntza egitera animatzen ditugu. Gauza bertsua gertatzen da Mekanika edo Elektrizitatea ematen duten ikastetxeetan; Ingeniaritza Teknikoaren bidea egitera animatzen ditugu. Hori da bultzatzen ari garen bidea. Ikasle hauen portzentajeak %30 inguruan ibili behar luke, bultzatu beharreko aukera bat da", esan zuen **Ana Mongek**, Ikastolen

Elkarteko Lanbide Heziketako arduradunak. Unibertsitaterako jauzia egin dutenen lekukotasun batzuk bildu ditugu. Hori da Inge Orrantiaren kasua. Laskorain ikastolan egin zituen ikasketak DBH bukatu arte. Ez zuen jarraitzeko gogorik, lehenbailehen lan munduan sartu nahi zuen eta Inmakulada ikastetxera joatea erabaki zuen erdi mailako ziklo bat egitera, Erizaintza laguntzaile izateko. Lanean ari zen bitartean goi mailako ziklo bat egiteko gomendatu zituen irakasleek. Hala, Diagnosi Irudia zikloa egin zuen eta handik unibertsitatera pasatu zen. Gaur Donostian Erizaintza ikasten ari da. "Adin horretan aldaketa handiak ematen dira. Hamasei urterekin batek ikasketak uzteko gogoia izan, eta handik bizpahiru urtetara kontrakoa

ikus dezake oso garbi. Bi urtean heldutasuna hartzen dute. Hogei urterekin bukatzen dute goiko zikloa eta batzuek aurrera jarraitzea erabakitzen dute", erantsi zuen Mongek. Beste kasu argigarri bat aipatuko dugu. **Olatz Godoyk**



Medikuntza egiteko gogoia zuen txikitandik, baina horretarako ez zuen ikasketak horietan sartzeko adinako notarik lortu eta Lanbide Heziketaren bidea aukeratu zuen. Diagnosi Irudia egin eta sartu zen Medikuntza ikastera.

**KASU GEHIAGO**  
Antzeko hirugarren kasu bat aipatuko dugu. **Patricia Vazquez** anbulantziako langilea zen Diagnostiko Irudia ikasten hasi zenerako. "Ikusten nuen ziklo hori eginda, lan irteera asko nituela eta, gainera, Unibertsitateko atek irekitzen zizkidala. Zikloa bukatu bezain pronto Erizaintzan



**Donostiako Onkologiko eta Arantzazuko Ama Ospitaleko ordezkariekin egindako argazkiak.**

**Inge Oliverosen** kasua antzekoa da. Kirol Magisteritza egiten hasi eta oharitu zen ez zela berak espero zuena. Ezker Ibarra ikastolan Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustatzeko goi zikloa egin, eta gaur Santurtziko Cabiezes auzoan dauden kirol eraikuntzetan ari da lanean Emtesport enpresaren bidez. "Normala ez dena zera da, Unibertsitatean letretako lizentziak atera, Pedagogian, Psikologian eta

Historian lizentziatura egin eta ondoren lanik aurkitzen ez dutelako Lanbide Heziketan ziklo bat egin beharra. Ez dugu datu zehatzik, baina ikasle horien kopurua kontuan hartzekoa da. Estatu espainiarrean Unibertsitatera joaten diren ikasleen portzentajeak Europako altuenak dira. Portzentaje horiek parekatzen edo inbertitzen saiatu behar dugu. Ez gaude Unibertsitatearen aurka, baina bidaltzeagatik bidaltzeak ez dakar emaitza onik", esan zuen Mongek.

**EUROPAN BARRENA**

Guk begiratu ditugun ikasle ohien artean badago bat harridura pixka bat sortarazi diguna. **Ana Barrenetxea** da bere izena. Selektibitatea egin ondoren Txorierrri Politeknikoan DPM bat egitea erabaki zuen. Lehen urtean bertan ikasle truke batean hartu zuen parte, eta Erbeheretan 10 eguneko egonaldia egin zuen bertako ikasle batzuekin. Ikasturtea bukatu eta praktikak egitera Erbeheretara itzuli zen berriro eta hiru hilabete eman zituen bertan beka baten laguntzarekin. Hilabete horitan diseinu arloan egin zuen lan. Etxera itzuli eta bulego batean lanean hasi aurretik tailerrean lan egin behar zuela erabaki zuen, eta bi urte eman zituen Matrici kooperatiban tailerrean lanean. Bien bitartean alemana ikasten jarraitu zuen. Matricitik bidalita hiru hilabete eman zituen atzerrian lanean, Ford Belgican lehenik eta Turkian gero. Segidan Alemanian lan egiteko aukera izan, eta herrialde horretan Airbus proiektuan lan egin zuen hiru hilabetez. Gaur Matrici kooperatiban proiektuen buru da.

Lanbide Heziketatik irten eta enpresa propioa sortu dutenen kopurua ere kontuan hartzekoa da. "Lanbide Heziketak irtenbide asko dituela ikusi behar dute gurasoek. Goi mailako zikloetatik ateratzen diren ikasle asko autonomo gisa hasten da lanean. Orain, gainera, modulu bat sortu nahi dute enpresa propioa sortu

matrikulatu nintzen. Bukatu ditut ikasketak eta oso pozik nago, Osatek enpresa ospetsuak bertan lan egiteko kontratatu bainau", esan zigun.

"Garai batean ezin zen Lanbide Heziketatik Medikuntzara sartu, baina badira bizpahiru urte aukera hori zabaldu zela. Urtero dago ikasleren bat jauzi hori ematen duena. Aurten ere batek egin du aukera hori Tolosako Inmakuladan. Kontuan izan behar, bestalde, goi mailako ziklo batzuetan sartzeko nota altuak eskatzen direla; guk seitek gora eskatzen dugu. Horrek esan nahi du ikasle onak ditugula. Baina, gauza bera gertatzen da Txorierrri Politeknikoan edo Zarauzko Oteizan. Mekanika edo Elektrizitatean goi mailako zikloak egiten dituzten ikasleetatik zati batek ingeniari ikasketak egiten jarraitzen dute", gogoratu zuen Ana Mongek.

Oteiza Politeknikoan ikasketak egin zituen ikasle ohi baten lekukotasuna ekarriko dugu ondoren. **Jexus Eizagirre** aiarra da. 43 urte ditu eta Gorosabel enpresan (50 langile) produktzio arduraduna da. Antoniano ikastetxean (Gaur Oteiza Politeknikoaren denean) Lanbide Heziketako zikloak egin eta Ingeniaritza Teknikoa

ONKOLOGIKO ATARIAN MARI SOL GARMENDIA ERIZAINEN BURU. ANA MONGE IKASTOLEN ELKARTEKO LANBIDE HEZIKETARAKO KOORDINATZAILE ETA RAMON LARRETXEAK ARANTZAZUKO AMA OSPITALEKO ERRADILOGOA.



ateratzen saiatzea merezi zuela erabaki zuen. Horrela, bada, Mondragon Unibertsitatera joan eta titulua atera zuen.

Goi zikloetatik Unibertsitatera doazen ikasle kopurua kontuan hartzekoa da, baina hori baino garrantzitsuagoa da, noski, Lanbide Heziketa egin eta bere lanarekin

gustura daudenen kopurua. Mila kasu aipa genitzake. Batzuk ekarriko ditugu orrialde honetara. **Olaiz Fernandezek** Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustatzeko goi mailako prestakuntza zikloa hasi zuen 2005-2006 ikasturtean. Gaur Bizkaiko Foru Aldundian eskola kirolen koordinatzailea da.

**NOTEN ARABERA**

"Goi zikloetatik Unibertsitatera igarotzeko ez da frogarik egiten, noten arabera igarotzen dira. Unibertsitateko matrikulen % 25 uzten zitzaion lehen Lanbide Heziketari, baina lege berriarekin muga hori albo batera utzi da; aukera berdinak dituzte Batxilergotik eta Lanbide Heziketatik doazenek. Protesta batzuk egon dira, zikloetako noten batzuek bestekoa altuagoa delako, baina egia da halaber sartzaren direnak esperientzia batekin sartzaren direla", jarraitu zuen Mongek.

Badaude alderantzizko bidea egiten dutenak ere. Horietako bat da **Naiara Landa**. Euskal Herriko Unibertsitatean Geografian lizentziatu zen. Lanbidea aurkitzea zaila ikusten zuelako, Txorierrri Politeknikoan Inguruko Kimikako goi zikloa, eta Ardolan laborategia sortu zuen beste lagun batekin batean.



## LANBIDE HEZIKETA HITZEZ HITZ



**INGE ORRANTIA**

Nire ideia hasiera batean ahalik eta azkarren lan munduan sartzea zen. Egia esan, ez dut lanean hasteko inolako arazorik izan eta lan eginez egin ditut geroztik ikasketak. Hamasei urterekin ez nuen uste inoiz unibertsitatera iritsiko nintzenik, baina denborarekin konturatu naiz ikasten ari zarena benetan gustuko baduzu, dena askoz ere errazagoa dela. Bidean nire ikasketak aurrera eramaten lagundu didaten irakasleekin egin dut topo. Erdi mailako zikloa egin nuen (Erizain laguntzaile), goi mailako zikloa gero (Diagnosi Irudia) eta Erizaintzan bigarren ikasturtea egiten ari naiz.



**JEXUX EIZAGIRRE**

Esku lana gogoko nuen eta Lanbide Heziketako ikasketak egitea erabaki nuen. Erdi mailako zikloa egin nuen lehenik

(mekanika, elektrika eta delineazioa) eta goi zikloa ondoren elektrikan. Oporretan lan egiten nuen eta irtenbide normala lan mundura jotzea zen, baina Ingeniaritza Teknikoa egitera erabaki nuen. Adierazi behar dut Lanbide Heziketako ikasketak oso baliagarri izan nituela ingeniarietza egiteko. Ederlan kooperatiban hasi nintzen lanean eta gaur produkzio arduraduna naiz 50 langile dituen Gorosabel enpresan.



**OLATZ GODOY**

Txikitandik nuen buruan Medikuntza ikasketak egitea, baina Batxilergoan mila gauzarekin endredatu nintzen eta ez nuen behar adinako notarik atera. Beste karrera bat hartu beharrean Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat (Diagnosi Irudia) egitea erabaki nuen eta hor lortu nuen notaren bidez sartu nintzen unibertsitatean, neuk nahi nuen karreraren. Eta guztiz harro nago aukera hori egin izanaz. Orain egiten ari naizen karreraren sartzeko aukera emateaz gainera, honi begira oinarri sendoa eman dit goi mailako zikloak. Nik hasiera batean espero nuena baino aberasgarriagoa izan da esperientzia, ezagutza mailan pentsatzen nuena baino gehiago ikasi baitut asignatura askotan. Oso gustura geratu nintzen praktikekin ere, erdia

hemen eta beste erdian Britainia Handian egin bainituen.

**OLAIZ FERNANDEZ**

Ibar Ezkerra ikastolan egin nuen Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustatzeko goi mailako zikloa. Aldundiaren Kirol Sailean egin nituen praktikak, eta amaitu bezain laster eskola kirola koordinatzeko plaza bat atera zen. Gorputz eta Kirol Ekintzen goi mailako titulazioa eskatzen zuten eta hirugarren hizkuntz eskakizuna. Oposizioak prestatu nituen eta gaur plaza horretan lan egiten dut. Funtzionarioa naiz. Eskola kirolak egitaraua burutzeko laguntzak ematea, federazioekin hitzarmenak izenpetzea, eta prestakuntza zein hausnarketa programak bultzatzea da nire lana.



**ANE BARRENETXEA**

Selektibitatea gainditu eta jende guztia unibertsitateari begira jarri zen, baina ez nuen gustatzen zitzaizdan karrerarik aurkitzen. Txorierrri Politeknikoan DPM bat egin nuen. Lehen ikasturtean egin nuen nire lehen irteera atzerrira, ikasle truke bati esker hamar egun egin bainituen Erbeheretan. Beste hiru hilabete eman nituen ondoren herrialde horretan praktikak egiten diseinu arloan lanean. Bulegoan lanean hasi aurretik tailerrean egin nahi nuen lan eta bi urte

eman nituen Matrici kooperatiban, nahiz eta eten bat egin eta Belgikan eta Turkian egonaldiak egin nituen. Alemana ikasten ari nintzen eta herrialde horretan hiru hilabete eman nituen gero Airbusen lanean. Ingelesa eta alemana dakizkit eta gaur Matrici kooperatibako proiektuen burua naiz. Suedian, Alemanian eta Hegoafrikan burutu ditugu azken proiektuak.



**NAIARA LANDA**

EHUn Geografia ikasketak egin nituen, baina lana aurkitzeko aukera gutxi ikusten nituen, Txorierrri Politeknikoan Ingurumenaren Kimika goi ziklo bat egitea erabaki nuen. Azti-Tecnalian (itsas eta elikagaien zentro teknologikoan) egin nituen praktikak hiru hilabetez. Beste sei hilabetez jarraitu nuen bertan BBK-Gaztelanbideak eskaintako diru laguntzari esker. Gaur egun kudeatzen dugun enpresaren ideia hor sortu zitzaigun. Txorierrri Politeknikoan dagoen autoenplegu arduradunari planteatu genion proiektua eta bideragarritasun planarekin joan ginen BBK-Gaztelanbidean programara. Horrela sortu genuen Raket Medinak eta biok Ardolan, ardoaren inguruko laborategia. Txorierrri ikastegiak eskaini zigun horretarako azpiegitura. Bost urte daramatzagu lanean.

«nahi duten ikasleei laguntzeko», esan zuen Ikastolen Elkarte Lanbide Heziketako arduradunak. Bi kasu aipatuko ditugu. **Joseba Martos** eta **David Martinez** Batxilergoa egiten hasi ziren Bermeoko Institutuan, baina ez zeuden gustura eta Ibar Ezkerran Informatika Sistemen Ustiapena erdi mailako zikloan matrikulatu ziren. Informatikan oso zaleak izaki, oso nota onak ateratzen hasi ziren. Gaur Markatu-Interaktiboan eta Zylk.net enpresetan ari dira lanean, eta bien apustua software enpresa propioa sortzea da.

**Lanbide Heziketan goi ziklo bat egin eta unibertsitaterako jauzia egiten dutenen kopurua gero eta altuagoa da.**

### LA FP, UN ABANICO DE POSIBILIDADES

En contra de los que piensan muchos padres, la Formación Profesional ofrece a los alumnos un amplio abanico de posibilidades. Es cada vez mayor el número de alumnos que tras realizar los ciclos formativos de grado superior acceden a la Universidad. Según Ana Monge, responsable de la FP en las ikastolas, el porcentaje podría llegar al 30% en varios de los ciclos formativos. *«Creemos que es la vía más natural para acceder a los estudios universitarios. Es al menos la vía que estamos*

*promocionando, porque también hay un importante número de alumnos universitarios que tras lograr la licenciatura, sobre todo en las carreras de letras, vienen a la formación profesional con el objetivo de entrar al mercado laboral»*, señaló. Hemos recogido el testimonio de alumnos que a partir de la FP han realizado estudios universitarios y hemos incluido asimismo algunos testimonios de alumnos que han montado sus propias empresas, otra de las salidas que promueven desde las escuelas de FP.

### LA FORMATION PROFESSIONNELLE, UN ÉVENTAIL DE POSSIBILITÉS

Contrairement aux idées reçues, la formation professionnelle offre aux élèves un grand choix de débouchés. Le nombre d'élèves poursuivant à l'Université suite à une formation professionnelle est grandissant. Selon Ana Monge, responsable de la formation professionnelle dans les ikastola, le pourcentage pourrait bientôt atteindre les 30%. *«Nous pensons que c'est la voie la plus naturelle pour accéder aux études universitaires. C'est tout du moins l'argument que nous avançons le plus*

*souvent même s'il est vrai qu'un nombre important d'élèves venant de l'Université après y avoir obtenu une licence, surtout en Lettres, rejoignent nos établissements dans le but d'entrer dans la vie active»* souligne-t-elle, avant d'ajouter: *«Nous avons recueilli le témoignage d'élèves qui, suite à la formation professionnelle, ont réalisé des études universitaires ou monté leur propre entreprise. C'est l'autre argument principal développé par nos écoles»*.

ekar

NIKZURI  
ZUKNIRI  
KULTURA  
OPARI



**BABESLEEI IKASTOLEN IZENEAN  
ESKER ONEZ**



# KRISI GARAIAN ERE GUREKIN

KRISIAREN AITZAKIA ERABIL ZEZAKETEN, BAINA EZ DUTE EGIN. Oso babesle leialak dira gureak, eta beste behin gurekin izango dira herrialdez herrialde egingo diren festak laguntzen. Babesleen artean Euskaltel, Kutxak eta EITB ditugu. Laguntzaileen artean Eusko Label, Abra —Arabar Errioxako ardoak—, Kaiku, Naturgas, Eroski Fundazioa, Eroski Bidaiak, Baqué kafeak, Lumagorri, Norbega (Coca-Cola, Fanta eta Aquabona), Mahou, Aneto saldak, Elkar eta Askagintza izan dira aurten ere lurraldeetako ikastola jakin batzuen ametsak eta ilusioak gauzatzeko bitartekoak jarri dituztenak; Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak ala Nafarroa Oinez jaiei lagunduz, festaz festa alboan izanda, urte osoko lanari aterpea eskainiz. Ikastolen festa bat antolatzeko bi mila lagun inguru mobilizatu behar izaten dira. Urte eta erdi bat lehenago hasten dira lanean. Lur sail bat erosi, eraikin berri bat altxatu edo zaharra berritzea izaten da beren ametsa. Eta egiteko horretan ez dute hutsik egingo aurten ere gure babesle eta laguntzaileek.

**Ikastola guztien izenean ESKERRIK ASKO!**



**KOMUNIKABIDEAK**



**LAGUNTZAILEAK**



KALITATE FUNDAZIOA. IÑAKI ISASI



EROSKI BIDAIAK. LUIS IGNACIO BUJANDA



EUSKALTEL. JOSE ANTONIO ARDANZA



MAHOU. IÑIGO GARAIZAR



LUMAGORRI. RAMON IRAZU



BAQUÉ. LAURA LIAÑO



KAIKU. XABIER ARISTI



ANETO.



NORBEGA. JOSE MIGUEL LANZAGORTA



EROSKI FUNDAZIOA. JESUS MARI EUBA



NATURGAS. RAFAEL CAREAGA



ARGIA. IXABEL BEREZIARTUA

**BABESLEAK**



**ESKER ONEZ**

Herri Urratsez, Ibiladiaz, Araba Euskaraz berdin Kilometroak, Nafarroa Oinez... denetan bultzatzaile fin, gudan sinestuz, jarrera prestuz urtez urte elkarrekin esker oneko joan-etorrian bihurtu gera lagun min ikastoletan arnas biderik, ezin da bestela egin.

Mikel Mendizabal  
Bertsolaria



# EUSKARAREN GOTORLEKUA EBRO ERTZEAN

**Ikasle ohien umeak euskararekin datoz lehen aldiz Lapuebla de Labarkan ikastolara**

Bi datu itxarobiderako ditu Lapuebla de Labarkako ikastolak: ikasle ohien umeak hasi dira bertan matrikulatzen, ama hizkuntza euskara duten haurrak, alegia, eta euskararen presentzia kalean ere sendotzen has daitekeen esperantza piztu du bertako euskaltzaleengan eta, bestetik, bi lerroko DBH ezarrita dutenez, Batxilergoan ere gelak nahi bezala beteko dituztela uste dute datorren ikasturtetik aurrera. Zuzendariarekin eta ikasketa buruarekin izan ginen.

Lapuebla de Labarkako ikastola ezberdina da. 301 ikasle ditu eta horietatik erdiak baino gehiago nekazari giroko familietakoak dira, bertako mahasti eta upategietan lan egiten duten familietakoak. Lana, beraz, etxean dute eta DBH bukatzen dutenean horretan hasten dira. Horrek asko baldintzatzen du beren ibilbide akademikoa.

"Gure promozioan, esate baterako, neska gehienak inibertsitatara joan ginen eta mutilak, aldiz, lanean hasi ziren. Orain hasi dira gauzak pixka bat aldatzen", hasi zitzaigun Itziar Fuertes, ikastolako ikasle ohi eta gaur ikasketa burua dena.

1977an hasi zen ikastolan bi urterekin eta Kimika ikasi zuen

Logroñon. Orain DBHn eta Batxilergoan ematen ditu klaseak. Lapuebla de Labarkako Assa ikastolak 31 urte ditu eta lehen promozioiko ikasleen haurrak ikastolara etortzen hasi dira. "Gure gurasoen hizkuntza gaztelera zen eta herrian ere oso pertsona jakin batzuek bakarrik hitz egiten genuen euskaraz. Guretzat, beraz, euskara ikastolako hizkuntza zen. Orain, aldiz, umeekin etxean euskaraz egiten dugu eta haurrentzat etxeko hizkuntza bihurtuko da euskara. Gertakari horrek eragin handia izan dezake, eta datozen urteetan euskararen presentzia sendotu dezake kalean zein eguneroko bizimoduan.

Orain arte hemengo guraso gehienak erdaldunak izan dira; orain, ordea, ikasle

ohiak hasi dira ikastolako guraso izaten eta horrek izango ditu ondorioak", jarraitu zuen Itziarrek.

## ESKUALDEKO IKASLEAK

Assa Ikastola Ebro ertzean dago, Euskal Herriaren mugan, eta Araba Errioxako inguruko herrietatik ez ezik, Fuenmayor, Logroño, Haro edo Casalarreinatik ere erakartzen ditu haurrak. Fuenmayortik, esate baterako, 11 haur etortzen dira taxiz. "HHn eta LHn autobus linea eta taxi zerbitzua erabiltzen ditugu haurrak ekarri eta eramateko, eta DBHn eta Batxilergoan beste lau autobus linea. Eskola garraioa da garestien ateratzen zaigun zerbitzua, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko lineak ez baitizkigute diruz



GOIAN DBHKO IKASLEAK PATIOAN; BEHEAN LEKEITIAK MAHATSA DASTATZEN ETA ARDOAREN PROZESUA EZAGUTZEN.

laguntzen. HHn eta LHn inguruko herrietakoak hartzen ditugu, baina DBHn eta Batxilergoan zabaldu egiten da asko ikasleen jatorria, Bastida, Villar, Lantziego eta Vianatik ere etortzen baitira. Hemen oso herri ezberdinetako lagun koadrilak sortzen dira eta baita bikoteak ere", esan zigun Idurre Arrieta zuzendariak. Idurre donostiarra da. Kimikan lizentziatua da bera ere. Ordezkaritza bat egitera etorri eta bertan geratu zen. Hamaikagarren urtea du lanean, azken hiruretan zuzendari lanetan diharduelarik. Orain lau urte, Bastidan ikastola berria egin zutenean, DBHko lehen zikloa bikoiztu zuten. Lehen zikloko bi mailetan gela bat Bastidan dute eta bestea Assan. "DBHko bi lerroak gora iritsi ahala, Batxilergoa ere indartu egingo dugu", jarraitu zuen Idurrek.

Eskualdeko ekonomia ardoaren inguruan dago

## LAPUEBLA DE LABARKAKO IKASLEAK LEKEITION ETA LAZKAON

Itziar Fuertes, ikastolako ikasketa burua, oraindik gogoratzen da DBH3n Lazkaon igaro zuten hilabeteaz. "Gu izan ginen Lazkaora joan ginen lehen ikasleak 1989an. Nik 14 urte nituen. Asteleheneretik ostiralera euskaltegian egoten ginen. Goizean Maizpiden klaseak jaso, eta arratsaldetan hango ikastolako ikasleekin ibiltzen ginen edo bisitak antolatzen zizkiguten ingurua ezagutzeko. Asteburuak ikastolako familiaren batean igarotzen genituen. Sekulako lagun piloa egin genuen hilabete horretan. Gaur egun harreman horiek errazago mantentzen dira Internet bidez. Gure garaian gutun arruntak idazten genituen. Baina garrantzitsuen esperientzia horrek utzi zizkigun oroitzapenak dira. Ni orain irakasle gisa joaten naiz taldeekin", hasi zen kontatzen Itziar. Orain hamabost eguneko egonaldiak egiten dituzte DBH3koek Lazkaon, eta hiru egunekoak Lekeition DBH1ekoek. "Hemen ama hizkuntza ez da euskara, eta uda osoa pasatzen dute gaztekeraz bizitzeko. Irailean berriro euskararen munduan murgiltzeko egiten da esperientzia hori. Gainera, euskara ikastolatik kanpo ere erabilgarria dela ikusi, eta bidenabar Euskal Herriko beste bazter bat ezagutzen dute. Bestalde, eskertzekoa da Maizpidek egiten duen ahalegina ere, helduekin lan egiten duen euskaltegia izanik, ahalegin berezia egiten baitute gure ikasleekin", esan zuen Idurrek. Ondoren, etxean ikasleak hartu dituzten Lazkaoko familiek egun batzuk pasatzen dituzte mahats biltzen Lapuebla de Labarkan. DBH1eko ikasleek, bestalde, hiru eguneko egonaldia egiten dute udaberrian Lekeition eta Lekeitiok Lapuebla de Labarkan. •

## CON EL EUSKARA COMO LENGUA MATERNA

La incorporación de los ex alumnos como padres en la ikastola de Lapuebla de Labarca ha hecho que aumente el número de niños que acceden a las aulas con el euskara como lengua materna. Este hecho, nuevo en la historia de la ikastola, facilitará la implantación de esta lengua en la ikastola y es

probable que redunde en una mayor utilización en la calle. Por otra parte, la prolongación de la doble línea en ESO, que se implantó hace tres años, colmará el déficit de alumnos que la ikastola tenía en los cursos de Bachillerato. La ikastola Assa tiene ya más de 300 alumnos.



## L'EUSKARA COMME LANGUE MATERNELLE

L'arrivée des anciens élèves en tant que parents à l'ikastola de Lapuebla de Labarca a fait que le nombre d'enfants scolarisés à l'ikastola et ayant l'euskara comme langue maternelle a augmenté. Ce fait, nouveau dans l'histoire de l'ikastola, aidera à l'enracinement de l'euskara à l'ikastola et il est

probable qu'il influera également directement sur l'utilisation de l'euskara dans la rue. Par ailleurs, la double filière du Secondaire, ouverte il y a trois ans, palliera le déficit d'élèves inscrits en terminale. L'ikastola Assa compte plus de 300 élèves.

Herriko Gazte Gunea ikastolaren azpian dago. "Herriko ikastetxe bakarra da Assa Ikastola eta ez dago beste lekurik, pilotalekua ez bada. Ez dago kultur etxerik. Kultur ekintza gehienak, beraz, hemen egiten dira".

eratua eta gazteek, mutilek bereziki, Batxilergoa utzi eta lanean hasteko joera dute. "Hemen, esan dugun bezala, gazteek lana dute, baina ez dute lana egiteko formatu beharrik ikusten. Egoera horren aurrean, orain bi urte Lanbide inguruko ziklo bat jartzeko proiektua lantzen hasi ginen. Baina Hezkuntza sailak Biasterin ireki zuen ziklo hori eta atzera egin genuen", jarraitu zuen Idurrek.

"Aukerak zabaldu egin dira eta neska batzuek moduluetara joaten dira. Dena den, oraindik ere upategien munduak gizonena izaten jarraitzen du", esan zuen, bestalde, Itziarrek.

## KULTUR ETXEA

Lapuebla de Labarkako ikastola ikastetxe bat baino zerbait gehiago ere bada, herriaren kultur etxerik ez dagoenez, bertan egiten baitira yoga, aerobic edo pintura ikastaroak. Herriko Gazte Gunea ere ikastolaren azpian dago. "Herriko ikastetxe bakarra da eta ez dago beste lekurik, pilotalekua ez bada. Ez dago kultur etxerik. Kultur ekintza gehienak, beraz, hemen egiten dira", esan zuen Idurrek. "Hiru gune garrantzitsu daude herriaren: udaletxea, osasun zerbitzua eta ikastola", erantsi zuen Itziarrek. Ikastola handitu egin da, baina oraindik harreman estua izaten jarraitzen omen dute familiarik eta ikasleekin. "Ez da batere ikastola gatazkatsua. Nekazaritza munduko ikasleak hirietakoak baino sanoagoak direla esango nuke", jarraitu zuen Idurrek.

HH eta LHko ikasle gehienak bazkaltzen geratzen dira bertan, baina DBH eta Batxilergoan orduetegi jarraia dute. "Gure ikasle batzuek 50 minutu igarotzen dituzte autobusean, eta herri txiki askotako ikasleak genituela kontuan izanik, orduetegi hori onartu egin ziguten eta horrela jarraitzen dugu. Hirurak hamar gutxitan amaitzen dira klaseak, eta etxera joaten dira bazkaritara. Hori bai, goiz erdian sekulako otartekoak jaten dituzte", esan zuen zuzendariak. •





DVD, JOKO ETA CD-ROMEN AUKERA ZABALA ESKAINTZEN DU IKASTOLEN ELKARTEAK. INFORMAZIO GEHIAGO BEHARREZ GERO: [www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)

# OLENTZERORI ESKATZEKO MODUKO LAU OPARI

HH eta LHko neska-mutikoez beren gorputza eta hilabeteak eta urtarok ezagutzeko balio duten bi puzzle, euskal pertsonaia mitologikoen jolas egiteko mahai joko bat (7 urtetik gorakoentzat) eta euskal dantzak ikasteko DVDa dira aurten Ikastolen Elkarteak jokogintza didaktikoen arloan aurkeztu dituen berritasunak.

## HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

### URTAROK ETA HILAK (3-7)

**Deskribapena:** 36 zatiko kartoizko puzzlea, albo bietatik jolasteko. 18,5x63cm.  
**Edukia:** Urtarok, hilak, eta, hilei lotutako atsotitzak. **ESAR:** Muntatze-jolasa.

> **Nola erabili:** Hasteko, aurrealdetik osatuko dugu puzzlea, kolore gehien duen aldetik. Horretarako, ezer baino lehen, puzzle zati guztiak jarri behar dituzu aurrealdea bistan dutela. Konturatu zara hiru eratako zatiak daudela: batzuek zenbakia daukate, beste batzuek hilen izena, eta beste batzuek hil horrekin lotura duen irudiren bat; horixe da zatirik handiena. Hiru multzotan sailkatuko dituzu zati horiek. Ondoren, puzzlea osatzen hasiko zara. Kaxaren aurrealdean dagoen irudiari begiratzeko lagundu egingo dizu, seguruenik; fitxa bakoitzarekin ondo uztartzen den fitxa bilatzeak ere bai. Guk hemen proposatzen dizugun bidea gustatzen ez bazaizu, aurkitu beste bat! Puzzlea aurrealdetik osatu ondoren, beste horrenbeste egin dezakezu atzealdearekin, indarrak gelditzen bazaizu behinik behin! Oraingo honetan ere zatiak banatu behar dituzu lehendabizi; batzuek zenbakia dute, beste batzuek hilen izena, eta, azkenik, badira atsotitza dutenak. Lagunekin jolasteko beste bi jolas ere proposatzen dizkizugu: *Puzzlea taldean osatzen* eta *Ipuina asmatzen*. Helduon laguntzarekin jolasteko aukerak ere proposatzen dizkizugu: *Hizkuntza aberasten*, *Hilen izendapen desberdinak ikasten* eta, azkenik, *Atsotitzak ezagutzen*.



## HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

### GURE GORPUTZA (3-7) PUZZLEAK

**Deskribapena:** 30 zatiko kartoizko 2 puzzle, albo bietatik jolasteko. 45x58cm (puzzle bakoitza). **Edukia:** Neskaren eta mutilaren gorputz-atalak, hezurdura eta giza organoak.

**ESAR:** Muntatze-jolasa.

> **Nola erabili:** Hasteko, bi puzzleetako zatiak banatu behar dituzu; begiratu ondo fitxei eta neskaren puzzleari dagozkion zatiak eta mutilari dagozkion aurkitu eta bi multzotan jarri. Konturatu zara zati batzuk handiak direla, gorputzaren irudia dutenak, eta, besteak, txikiak, gorputz-atalen izenak idatzita dituztenak. Adibidez, neskaren puzzlea egitea erabakitzen baduzu, lehendabizi erdiguneko irudia osatuko duzu, zati handienekin. Ondoren, albo bietako zati txikiagoak jarriko dituzu. Lagunekin jolasteko beste bi jolas ere proposatzen dizkizugu: *Gorputz-atalak igartzen* eta *Puzzlea taldean osatzen*. Helduon laguntzarekin jolasteko aukerak ere proposatzen dizkizugu: *Hizkuntza aberasten*. Zu, mutila, eta ni, neska eta, azkenik, Neure burua zaintzen eta maitatzen.



## HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

### 8KBZ. ZORTZI, KATILU BETE ZORRI (3+) DVDa

**Deskribapena:** Marrakzi bizidunetako bideo honetako protagonista zortzikote bat dugu: Txinpart, Naia eta Maia bikiak, Xaxa, Eustaki, Tartalo, Txiki eta Eki. Dantza erraz eta politak erakustera datozkigu. Lau dantza aukeratu dituzte guri erakusteko: *Esku-dantza*, *Zapatindantza*, *Xan Petrike* eta *Zazpi Jauziak*. Ausartuko ote gara eurekin batera dantza egiten?

> **Nola erabili:** Pelikula legez ikus daiteke bideoa, lau dantzak bata bestearen ondoren ikusita, dantzari guztiek dantzatuta. Pausoz pauso atalean dantzaren pauso nagusiak erakutsiko dira, ohiko abiaduran baino astiroago. Dantza osoa atalean dantza osoa egongo da ikusgai, dantzari bakar batek dantzatuta. Menu honek beste bi aukera ditu barruan: a) Alboz edo atez ikustea dantzaria. b) Ohiko abiaduran edo abiadura motelagoan ikustea dantzaria.



## HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

### NOR DA NOR (5+)

**Deskribapena:** Plastikozko bi euskarri, bakoitza 24 pertsoniarekin eta 24 karta, pertsonaiekin hauek ere. **Edukia:** Mari, Tartalo, Basajaun, Lamia, Marijaia, Zeledon, Atorak, Hartza, Kotilungorriak, Erraldoitxoak, Marquitos, Miel Otxin, Txatxoa, Zakzaharrak, Zamaltzain, Kantinierra, Korrikalaria, Gargantua, Danborraria, Sorgina, Prakoarriak, Joaldunak, Mamoxarroak, eta Surrandia. **ESAR:** Arau soileko jokoa.

> **Nola erabili:** Jokalari bakoitzak bere euskarri jarriko ditu bere 24 pertsonaiek. Karta legez erabiliko diren 24 txartelak nahastatu egingo dituzue, eta jokalaria bakoitzak karta bat hartuko duzue. Beste jokalaria hartu duen kartan dagoen pertsonaia zein den igartzea da jokoaren helburua. Jokalariok txandaka arituko zarete, bata besteari galderak egingo. Esaterako: *Badauka buruan kapelarik? Badu ezer gorririk? Badarama eskuan makilarik? Ezin izango duzue galdetu andrazkoa ala gizonzkoa den. Jokalari biren orde, bi taldek ere jola dezakezue. Lagunekin jolasteko beste bi jolas ere proposatzen dizkizugu: Pareak eta Nor bizkorrago.*



## OLENTZERO, A LA VUELTA DE LA ESQUINA

Todavía no ha llegado, pero está a la vuelta de la esquina. Si son los padres quienes tienen que escribir la carta a Olentzero, la elección está clara: la sección de juegos didácticos de Ikastolen Elkarteak os propone un puzzle para conocer el propio cuerpo (HH y LH), otro para estudiar los meses y las

estaciones (3-7 años), un juego de mesa con 24 personajes mitológicos para niños mayores de 7 años y un DVD para el aprendizaje de los bailes básicos vascos, al que se pueden apuntar también los mayores.



## BIENTÔT OLENTZERO

Plus que quelques semaines avant la venue d'Olentzero. Les parents qui auront à écrire à Olentzero sauront quoi demander pour leurs enfants: la section jeux didactiques de Ikastolen Elkarteak propose cette année un puzzle pour apprendre à connaître le corps humain (maternelle et primaire), un autre pour

étudier les mois et saisons de l'année (3-7 ans), un jeu de société avec 24 personnages mythologiques (+ de 7 ans) et un DVD d'apprentissage des danses basques les plus courantes. Ce dernier est également destiné aux adultes.



ERREKREKO ARGAZKIAN, TXEMA MARITXALAR, FELIX AZURMENDI ELIZBARRUTIKO ORDEZKARIA, INAZIO MARI OLARTE, ARANTZA MANTEROLA, MIREN ETA GURUTZ ANSOLA SENAR EIMZTEA INAUGURATU BERRI DEN ERAIKINAREN ATARIAN.



# GIEK 40. URTEMUGA OSPATU DU

## Ikastolen Etxearen eraikin osagarria inauguratu zuten

Ideia nagusi bat errepikatu zen behin eta berriz GIEren sorrerako 40. urtemuga ospatzeko, azaroaren 14an Ikastolen Etxean antolatuta zuten ospakizunean: Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen eraikin osagarria izan da, historikoki, Euskal Herri mailako ikastola-elkartearen erreferente eta motorra, eta izpiritu horri eutsi nahi dio europar kooperatiba berriaren aroan ere. Elizbarrutiak Donostiako Antigua auzoan utzitako lokal xume batean eman zituen GIEk lehen pausoak. Berrogei urte geroago Añorgako Ikastolen Etxe ikusgarrian ospatu zuten urtemuga; bertan, eta irakasleen prestakuntzarako erabiliko diren instalazio berriak inauguratu ziren.

**B**i ahots eta bi ikusmira erakutsi zituen urtemugako ospakizunak: Arantza Manterolak, lurralde mailako lehendakariak, atzera begira jarri eta GIEren historiari gainbegiratu eman zion, eta Koldo Tellituk, Ikastolen Elkartearen lehendakariak, abertzalerik gabeko Jaurilaritza berriaren aurrean ditugun apustuak aipatu zituen. Hizlarie entzuten, hainbat ordezkarien artean, lehendakari historiko batzuk ziren, hala nola, Gurutz Ansola, lehen lehendakaria (1969-70) eta Inazio Mari Olarte (1972-73).

Egungo lehendakaria den Arantza Manterolaren hitzekin ireki zen, dena den, Ikastolen Etxeko ekitaldia. Bere jarduna, 60ko hamarkadan ikastolek herrialde honetan ezagutu zuten hedapena gogoratuz hasi zuten. 1969ko azaroaren 9an sortu zuten Gipuzkoa mailako elkarte Loiolan, eta 18 urte geroago sortu zuten Euskal Herri mailakoa. Hasiera beretik GIEk, Gipuzkoako ikastolei ez ezik, Euskal Herriko ikastola guztiei zerbitzuak eskaintzeko izandako jarrera nabarmendu zuen Manterolak, eta arlo pedagogikoan landutako proiektu nabarmenenak aipatu zituen, hala nola, Iker eta Saioka testuak, "Baga Biga", "Bertso Galaxia", "Haurtxoa", "Axelko", "Otsoko" eta "Beleko"; "Ostadar", "Urtxintxa" eta "Txanela" proiektuak.


"Material horrek duen balioaren frogatzat aipa genitzake 1987tik hona gure material didaktikoei urtero jaso dituzten Lopez Mendizabal eta Migel Altzo sariak", esan zuen Arantza Manterolak. Bertsolaritza ikastoletako geletan sartu, eta 29 urte daramatza GIEk lurralde mailako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa antolatzen ere. Ikaspirola, udalekuak, beste erakunde batzuekin batean GIEk plazaratutako "Gazteen entziklopedia", irakasleen prestakuntza, Eleanitz goiztiarra (Europa mailako sari bat baino gehiago merezi izan duena), Teknologia berrien arloa daraman IKT Taldea, Ikasys proiektua eta beste zenbait ere aipatu zituen Arantza Manterolak. Gipuzkoako Elizbarrutiak ikastolekiko erakutsi duen eskuzabaltasuna ere eskertu zen ekitaldian. "Frankismoaren garai ilunetan ezinbestekoa izan zen Elizaren babesa", esan zuen Manterolak.

Gonbidatuen artean, Felix Azurmendi bikario nagusia zegoen. "Azkenean, 2005ean inauguratu genuen orain gauden egoitza hau. Funtzionala, sormenerako aproposa, ederra. Eta laster batean inauguratuko dugu bigarren zatia. Eraikin hau ez da Gipuzkoako ikastolen egoitza bakarrik, legezko jabetzaren gainera ikastola guztien eraikina baita orain, eta etorkizunean ere halaxe izango baita. Horretan ere orain 40 urteko izpirituari eusten diogu", jarraitu zuen. **NORI IZANGO DIOGU BELDUR?** Koldo Tellituk, bestalde, gogoeta batzuk eginez abiatu zuen hitzaldia. "Poztekoa da hemen ordezkarien artean beste lurraldetako kideak ikustea. Esan gabe doa ez naizela Euskal Herri kulturalaz ari, gaurko agintarien hain gustukoa den Euskal Herri horretaz alegia, Euskal

Herri kontzeptu integralaz, Euskal Herri nazionalaz baizik", esan zuen. Manterolaren azken hitzak hartu zituen abiapuntutzat, "Bizkaian sortu ziren lehen ikastolak, oker ez banago" gogoratzeko; "baina Gipuzkoakoak izan ziren lehenak izaera antolatua ematen. Eta europar kooperatiba sortu berria dugun honetan esan behar dut elkartasunak ematen digula indarra, bai haizea alde dagoenean eta bai krisialdian, bereziki bigarren hauetan. 1993ko krisialdia garaitu ondoren, zeri izan behar diogu beldur etorkizunean?", esan zuen. Eta EAEn abertzalerik gabeko Jaurilaritza inoiz ez dugula izan gogoratu

ondoren, "iritsi direnek ez gaituzte dezezionatu: espero genuena esanez hasi dira, zoritxarrez. Euskararen garapenaren aurka doazen eta Euskal Herriaren ukazioa diren adierazpenak eginez aritu dira, eta finantziario murritzaketak agindu dituzte. Baina ikastolen mugimendu antolatua bada nor gaurko eskola sisteman eta ez dugu amore emango; ez dugu atzera pausorik emango", esan zuen. Ainhoa Aierbe aktorea izan zen aurkezle, Ganbara taldeko kide ohiek, Joxean, Juan eta Maria Eugeniak, musika emanaldia eskaini zuten, eta lehendakari historikoen lekukotzak biltzen dituen bideo bat erakutsi ondoren, instalazio berrien zinta moztu eta otamentxo batez amaitu zen familiarteko festa.

Bi ahots eta bi ikusmira erakutsi zituen urtemugako ospakizunak: Arantza Manterolak, lurralde mailako lehendakariak, atzera begira jarri eta GIEren historiari gainbegiratu eman zion, eta Koldo Tellituk, Ikastolen Elkartearen lehendakariak, abertzalerik gabeko Jaurilaritza berriaren aurrean diren apustuak aipatu zituen.



### UNA DOBLE MIRADA A LA HISTORIA DE LAS IKASTOLAS

La celebración del 40 aniversario de GIE (Gipuzkoako Ikastolen Elkarte) sirvió ofrecer una doble mirada a la historia de éstas. Arantza Manterola, presidenta de este territorio, calificó a la entidad de "referente y motor" tanto para la constitución de la primera confederación en 1987 como de la cooperativa europea en la actualidad. Y Koldo Tellitu, presidente de la Confederación de Ikastolas y de la cooperativa europea,

constituida recientemente, avanzó algunas reflexiones sobre el concepto de Euskal Herria que defienden los actuales inquilinos de Lakua y dijo que tras haber superado la crisis del 93, "¿a qué íbamos a tener miedo las ikastolas? Además —añadió, dirigiéndose a los presidentes históricos de la época franquista— ¿qué hago yo aquí hablando de estos problemas, cuando vosotros tuvisteis que enfrentaros al franquismo?".

### DOUBLE REGARD SUR L'HISTOIRE DES IKASTOLA

La célébration du 40<sup>ème</sup> anniversaire de GIE (Fédération des Ikastola de Gipuzkoa) nous a offert un double regard sur l'histoire des ikastola. Arantza Manterola, présidente sur ce territoire, a qualifié l'entité de "réfèrent et moteur" tant pour la construction de la première confédération en 1987 que pour celle de la coopérative européenne actuelle. Koldo Tellitu, président de la Confédération des Ikastola et de la récente coopérative

européenne, a avancé quelques réflexions sur le concept d'Euskal Herria défendu par les actuels occupants du Gouvernement Basque et a posé la question suivante: "Nous avons surmonté la crise de 1993. Qui peut désormais faire peur aux ikastola?". Il a également ajouté, s'adressant aux présidents historiques de l'époque franquiste: "Que fais-je ici à parler de ces problèmes devant vous qui avez dû affronter le franquisme?".

iparraldekoa:



# SEASKAREN 40 URTEKO HISTORIA LIBURUAN

## Durangoko Azokan aurkeztuko da Maialen Garat eta Xan Aireren lana

Maialen Garatek, irakaskuntzan eta formakuntzan Seaskan lan egiten duenak, idatzi ditu lehen hogeita hamar urteei buruzko xehetasunak; Xan Aire gazteak, Euskaraz Bizi proiektuaren arduradunak, berriz, azken hamar urteetakoak. Liburu Durangoko Azokan aurkeztuko dute.

**B**erogei urte bete ditu aurtun Seaskak. Ekitaldi handiak antolatuta ditu urtemuga ospatzeko. Apirilean Biarritzko Gare du Midi antzokian egindako ekitaldian historia horren protagonista izan zirenak erakutsi ziren bideoetan. Aspaldiko bideoen bilduma bat egin, eta hasierako ikastolek nola funtzionatzan zuten agertu zuten. "Bideo horietako batek eman zidan

arreta. Nik lan egiten nuen ikastolako zen. Gurasoek ekartzen zituzten haurrak ikastolara autoetan. Auto horietako batetik haurrak ateratzen hasten dira, eta hamar haur kontatu nituen", gogoratu zuen Maialen Garatek. Maialen 76an hasi zen ikastolan lanean eta Seaskako irakasleen formazioaz arduratzen da gaur. Gexan Alfarok deitu zion orain

bederatzi urte Elkar argitaletxetik Iparraldeko euskal kultur mugimenduaren historia jasoko zuen dokumentu bat egin nahi zutelako esanez, belaunaldi gazteek horren berri izan zezaten, eta ea berak Seaskarena egingo al nuen galdetuz. "Bi urte eman zituen nire erantzunaren zain eta 2002an esan nion baietz. Beldur pixka bat ematen

zidan, Seaskaren historia guztiona izanik ere, bakoitzarena ere badelako, eta nik historia horren irakurketa bat egingo nuelako", hasi zen Maialen Garat liburu honen sorrerako kontuak agertzen. "Le mouvement culturel basque 1951-2001" izenburuarekin atera zen liburu 2005ean, eta hor Maialen Garatek frantsesez idatzi zuen lana hartu dute

orain euskaraz aterako den liburuaren oinarri. Xan Airek azken hamarkadaren historia erantsi dio. "Seaska definitzen duten hiru arlo edo eremu hartu ditut historia hori egiteko orduan. Euskara eta euskal kultura garatzeko sortu zen Seaska; aldi berean eskola berri bat egin nahi genuen, eta pedagogiaren garapenari garrantzia izugarria ematen

EZKERREKO ORRIALDEAN, XAN AIRE ETA MAIALEN GARAT SEASKAKO BULEGOAN LIBURUAREN BERRI EMATEN. ESKUBIKOAN BERRIZ, ERDIAN, LILIAN HIRIGOIEN ETA JANINE URRUTY "ERRÓBI IKASTOLA" ANDERENOK. ATERATAKOAK: IKASTOLEK BALONAKO PLAZA NAGUSIAK ANIMAZIOZ BETE ZITUZTEN: ARGITXU NOBILIA AITOR SEMEAREN ONDOAN, FILIPE GOVETXE LEHENDAKARI OHIAREKIN OIENALDIAN.

genion. Arlo zabal horretaz gainera, Gobernuarekin eraman ditugun negoziaketak aztertu ditut eta barne garapena ere bai. Hiru eremu horiek, bestalde, kronologikoki aztertu ditut, hamarkadaz hamarkada, ezberdintasun handiak eman baitira batetik bestera", esan zuen Maialen Garatek.

1969an sortu ziren Seaskako lehen ikastolak, eta ikuskariek, sindikatuek edo prefetek sekulako kanpainak egin zituzten beren kontra. 1977 an ireki zen hirugarren Lehen maila Donapaleun (beste biak 1975an irekiak izan ziren Angelun eta Donibane Lohitzunen) "Orduan egin zen Seaskak deitutako lehen manifestaldia Baionan. Eta guk uste baino askoz ere jende gehiago bildu zen bertan, 3.500 lagun, hain juxtu ere. Horrek eman zion Seaskari indarra. 1981eko hauteskundeetan sozialistek hartu zuten agintea. Mitterrandek bere kanpainan lurralde hizkuntzen eskubideen alde behin eta berriz hitzaldiak egin zituen, gero bete ez baziren ere. Baina horrek eskubide batzuk bagenituela ohartaraztera eraman gintuen. 80eko hamarkada, ondorioz,



GOI ETA BEHEKO ARGAZKIAK, 1994AN, SEASKAREN 25 URTEURRENEKO OSPAKIZUNEAN ATERATAKOAK. IKASTOLEK BALONAKO PLAZA NAGUSIAK ANIMAZIOZ BETE ZITUZTEN: ARGITXU NOBILIA AITOR SEMEAREN ONDOAN, FILIPE GOVETXE LEHENDAKARI OHIAREKIN OIENALDIAN.



ekintzen hamarkada izan zen. Ekintza horien zerrenda ikusgarria da. Eta 1990ean Seaska Gobernuaren solaskide bihurtzen da", jarraitu zuen Maialen Garatek.

Bilketa hau egin ahal izateko ikastolaren lehen bultzagileetatik hasi eta gaurdainoko arduradunekin mintzatu da Maialen. "Zerrenda liburuan dator eta horietako batzuek huts egin zidaten, elkarriketatu baino lehen hil zirelako, Manex Goinetxek, esate baterako. Ondoko hilabetean elkarrekin egotekoak ginen hil zenean. Gauza bertsua gertatu zitzaidan Itziar Barriolarekin ere. Jean Louis Maitia joana zen ordurako. Jean Louisen garrantzia nabarmentzekoa da, bere lana giltzarria izan

"Seaska definitzen duten hiru arlo edo eremu hartu ditut historia hori egiteko orduan: euskara euskal kultura eta eskola berria. Hiru eremu hauek, bestalde, kronologikoki aztertu ditut, hamarkadaz hamarkada, ezberdintasun handiak eman baitira batetik bestera".

Maialen Garat

"Hamarkada bakoitzaren historia idatzi ahal, irakurle batzuei eman zien Maialenek kontrasterako: Gexan Alfaro eta Mailux Zaldunbideri batetik; eta Kanbon bere lankide diren Lilian Hirigoi en eta Janine Urruty irakasleei ere bai", erantsi zuen. Historia honetan ez da, dena den, Seaska barruko eztabaida luzeen berri ematen. Seaska elkarte bizia izan da eta, Maialen Garaten ustez, gizartearen ziren arazo guztiek zuten beren isla bertan. Barruko eztabaida horiek albo batera utzi ditu.

Azken hamarkadaren historia Xan Airek egin du. Urepelekoa da, Xalbador bertsolariaren biloba. Ez da ikastolan ibilia eta ez zuen mugimendua kanpotik baizik ezagutzen. "Manifestaldietara etortzen nintzen, gurasoekin batean, baina ez nekien zenbat lan egin behar izan duten ikastolek Iparraldean hedatzeko; orain izan dut hori barrutik ezagutzerako aukera. Zirrargarria izan da. Nire lehen lana Maialenek idatzia irakurtzea izan zen. Orduan hasi nintzen Seaska maitatzen", hasi zen Xan Aire. Euskaraz Bizi proiektua Aitor Sarasuarekin batera kide da Xan Seaskan.

"Seaska. 40 urte euskararen alde" izango da liburuaren izenburua eta 200 orrialde pasa izango ditu. Durangoko Azokan aurkeztuko da.

baita Seaskan. Seaskako dokumentazioak ere informazioa handia eman dit. Garai hartan bilkura asko egiten genituen, eta guztien aktak gordetzen dira artxibategian. Azkenik, "Enbata" aldizkaria ere arakatu nuen. Bertan Seaskari buruzko argazki asko aurkitu nuen eta horiek erabili ditugu liburuan", jarraitu zuen Maialenek.

Azken hamarkadaren historia Xan Airek egin du. Urepelekoa da, Xalbador bertsolariaren biloba. "Manifestaldietara etortzen nintzen, gurasoekin batean, baina ez nekien zenbat lan egin behar izan duten ikastolek Iparraldean hedatzeko; orain izan dut hori barrutik ezagutzerako aukera". Xan Aire

### UNA CARRERA DE OBSTÁCULOS

Pocas instituciones culturales habrá que hayan realizado una carrera de obstáculos como la que ha protagonizado Seaska. Nada más nacer, las ikastolas de Iparralde fueron sometidas a campañas de difamación por parte de la Administración. Cuando en 1977 abren las aulas de Primaria se encuentran con una prohibición. Un libro escrito por Maialen Garat y Xan Aire recoge esta tortuosa historia de lucha y logros que protagonizaron las ikastolas de Seaska, que a lo largo del último medio siglo se ha convertido en el motor de la cultura en euskara de Iparralde. El libro se presentará en la Feria del Libro de Durango.

### UN PARCOURS SEMÉ D'EMBÛCHES

Rare sont les acteurs culturels ayant dû affronter autant d'obstacles que Seaska. Dès leur naissance les ikastola d'Iparralde ont dû faire face à une campagne diffamatoire de la part de l'Administration française. En 1977, l'ouverture des premières classes du primaire furent frappées d'interdiction. Un livre écrit par Maialen Garat et Xan Aire retrace le chemin sinueux des ikastola de Seaska, chemin composé de luttes et de victoires depuis quarante ans, chemin qui a permis à Seaska d'asseoir son rôle de moteur de la culture en euskara en Iparralde. Le livre sera présenté à la Foire du Livre de Durango.





IKASTOLAKO PROIEKTU ARDURADUNAK, IKASTOLAKO ATARIAN. IRIA TOPRADO (HH), IZASKUN ALDIZ (DBH), ANA ILARREGI (ORIENTAZIOA), JOSUNE PEREZ (LH), MAIDER ETXANIZ (HIZPRO), SUSANA BARBARIN (KALITEA), JOSU SUKUN (IKT) ETA JOSU REPARAZ (ZUZENDARIA). BLANCA REGULEZ, LEHENDAKARIA EZ ZEGOEN UNE HORRETAN IKASTOLAN.

# URREZKO Q ETA NAFARROAKO ENPRESA BIKAINENAREN SARIA

## Iraultza ezarri dute kudeaketa eremuan

Ordiziako Jakintza, Tolosako Laskorain, Elorrioko Txintxirri, Donostiako Axular, Lanbide Heziketa ematen duten Oteitza eta Txorierri... Urrezko Q saria eskuratu duten ikastolen zerrenda luzatzen ari da. Lizarrako ikastola sartu berri da aitzindarien zerrenda horretan. Iruñeko Baluartan hilaren 16an egin zen ekitaldian jaso zuten saria. Gainera, aurtan lurraldean Urrezko Q atera duen enpresa bakarra izaki, Nafarroako Enpresa Bikainenaren saria ere jaso du.

**L**ilura puntu bat eragiten duen ikastola horietako bat da Lizarrakoa. Antolakuntza, ganora, proiektuak, ilusioa eta berotasuna sumatzen dira bertara sartu orduko. Iritsi eta gela batean EFQM kudeaketa ereduaren arabera lan egiteko izendaturik dituzten zortzi proiektu arduradunak aurkitu genituen lanean. Ikastolako lehendakaria, gurasoen prozesuen liderra, ez zen une horretan.

*“Antolaketa aldetik gure ereduak egitura simplea du. Prozesuen mapa bat dugu ikastolan. Hor makro prozesu batzuk daude. Horietako bat politika eta estrategiarena da, eta horren barruan sartzen dira lau urteko zein urteko planak, hezkuntza proiektua,... Beste batzuk, nabarmenenak, Ikas-irakas, Pertsonen kudeaketa, kudeaketa ekonomikoa, Komunikazioa, Kalitatearen kudeaketa, Lidergoaren*

*kudeaketa eta komunikazioa dira. Nik badut horien guztien ezagutza zuzena, baina bakoitzak du bere liderra”,* esan zuen **Josu Reparaz** ikastolako zuzendariak. Mapa horretan 80 prozesu baino gehiago dituzte; jakina, batzuk besteak baino garrantzitsuagoak dira.

**ZILARREZKOTIK URREZKORA** Zilarrezkotik Urrezkora jauzi bat eman dutela diote.

*“Praktikotasunean irabazi dugu. Badauka ereduak alderdi burokratiko bat, baina ez da horrenbestekoa. Prozesu guztiak urtero errebisatu behar dira, markatu diren helburuak lortu diren ala ez neurtu, zertan huts egin dugun eta zertan hobetu behar den aztertu behar da bakoitzean, baina puntua hartzen zaio, eta oso lagungarri gertatzen da hurrengo ikasturtean hobekuntzak martxan jartzeko. Ikastetxe osoa*

*dinamika horretan murgiltzea eskatzen du Urrezko Qak”,* esan zuen, bestalde, **Izaskun Aldaz**, DBHko koordinatzaileak. Eredu horri esker dena sistematizatuta dute eta taldean ardurak banatuta. *“Aurreko memoria irakurri ondoren, seinalatu zizkiguten hobekuntza esparruak puntu indartsu bihurtzen jakin dugu, eta horri eman diote garrantzia kanpoko ebaluatzaileek”,* erantsi zuen zuzendariak.

URREZKO Q SARIA JASOTAKOAN ATERTAKO ARGAZKIA: BLANCA REGULEZ LEZARRA IKASTOLAKO LEHENDAKARIA, AURREKO BI LEHENDAKARIEKIN BATEA: INAKI ASTARRIAGA ETA JANIER ROCA. JOSU REPARAZ ZUZENDARIAREKIN.

### IRAILTZA BAT KUDEAKETAN

Ikastetxean kudeatzen diren proiektu guztietan hartzen dute parte irakasle guztiak. *“Urteko plana egiten ari garenean guk geuk hartzen ditugu erabakiak. Oso gauza zaila den arren, lortu egin*



*dugu. Sekulako aldaketa izan da. Iraultza bat izan da kudeaketa eremuan”,* jarraitu zuen Izaskunek. Lizarrako ikastolako proiektu berritzaile asko ditu martxan. *“Demagun Eleanitz programaren ezarpen progresiboa egiten ari garela, edo Hizkuntz Proiektuaren pauso berriak*

*markatu ditugula, edo Estimulazio Goiztiarra dugula martxan. Horiek guztiak jabe bat eta kudeaketa talde bat dute. Prozesuaren ezarpenaren jarraipena egiten dute urtean zehar eta ikasturte bukaeran ikasleen*

*emaitzetan, gurasoen satisfazioan, langileenean edo beste hainbat adierazletan izan dituzten arazoaren berri ematen dute; horrekin batera, hurrengo urterako planak berritzen dituzte”,* jarraitu zuen Josuk.

Etapako bakoitzeko koordinatzaileak, orientazio departamentuko buruak, Hizkuntza Proiektuko, IKTetako eta kalitate arloko arduradunak dira lider taldea osatzen dutenak. Lehendakaria, guraso batzordea eta zuzendaria ere


hor daude, noski. *“Beste ikastola batzuetan zuzendariak kudeaketa ekonomikoa eta antolaketa eramaten ditu bere gain. Gurean Josuk oso gertatutik jarraitzen ditu proiektu pedagogikoak, eta hori eskertu egiten dugu”,* esan zuen **Ana Ilarregi**, Orientazio buruak. *“Ardurak neure esku pilotzeko joera dut nik eta eredu honek gauzak delegatzen erakutsi dit”,* erantsi zuen zuzendariak.

1996an hasi ziren lehen formazio ikastaroak egiten. Poliki-poliki irakasle gehiago sartuz joan ziren eta, Josu Reparazek dioenez, 2000. urtea mugarri izan zen. Geroztik eredu diseinatu eta hedatuz joan dira. *“Gaur irakasle guztiak daude inplikaturik, eta kudeatzeko eredu demokratikoa dela esan dezakegu”,* esan zuen. 2003an lortu zuten

Brontzeko Qa eta bi urte geroago zilarrezkoa. **Iaz bertan beste sari garrantzitsu bat ere jaso zuten Lizarra ikastolak, Madrilgo Hezkuntza ministroak Elkarbizitza Praktika Onenen saria eman baitzion Pentazitate proiektuaren barruan egin duten lanagatik.**

### HISTORIA LUZEA

Lizarra ikastola 1970ean sortu zen Udalak aho batez utzitako lokal batzuetan. Gogoratu behar da 36ko gerra aurretik ere umeei euskara irakasteko “Escuela Vasca” izeneko bat izan zutela herrian. Petra Azpiroz leitzarria izan zen lehen andereñoa. **Gaur, Lizarra Ikastolak 675 ikasle ditu.**



## IKASLEAK ARTISTA HANDIEN LANAK “HOBETZEN”

Josu Reparaz zuzendariak kontatzen duenez, Juan Mieg margolariari LHko hirugarren maila egokitu zitzaion bi urtez behin artista ezagunen artelanekin egiten duten proiektuan. *“Hegazkinetik zoazela ikus daitekeen paisaia bat irudikatzen zuen bere lanak, eta gela horretako ikasle bati etxetik hiru metroko alfonbra bat ekarri eta haren gainean margotzen hastea bururatu zitzaion. Abiapuntu horretatik hasi eta sekulako lana egin zuten”,* esan zion Josuk bigarren solairuan hormatik zintzilik jarrita dagoen margolan ikusgarria erakusten digun bitartean. *“Margolariak negar egiten zuen ikasleen lana ikusi zuenean”,* erantsi zuen. Ez da kasu bakarra. Margolari eta eskultore askori gertatu zaie. Jesus Mari Lazkanok Erromako Panteoian margotutako kupula baten irudia ekarri zuen, eta ikasleek hirian zementuzko mugarri borobilak egiteko erabiltzen diren moldeekin errepikak egin zituzten eta

txundituta geratu omen zen. Antzeko gauzak kontatu daitezke beste artista batzuen obrak hartuta egin dituzten lanei buruz; horren adibide da Koldobika Jauregiren “Maleta”. Baina iazko edizioan oihartzunik handiena izan zuen lana “Etxe aldaketa” izenekoak izan zen. Egileak berea baino hobe zela esan omen zuen. *“Bi urtez behin egiten dugu esperientzia. Iazkoa hirugarrena izan zen. Aldi oro hamahiru euskal artista gonbidatzen ditugu. Gela bakoitzari artista bat eta artelan bat egokitzen zaizkio. Ez da beti artista gelara lanera etortzen eta ez dago beharrik ere. HH, LH eta DBHko ikasle guztiak hartzen dute parte, askotan txandaka lan egiten badute ere. Gelako lan bat egiten dute eta emaitza guztiak erakusketa zabalitzen da kultur etxeko areto nagusian. Hori guztiarekin katalogo dotore bat ateratzen dugu”,* jarraitu zuen ikastolako zuzendariak.


Josu Reparazek berak euskal artista askorekin duen ezagupideak eta harremanak asko erraztu du esperientzia. *“Artistaren batek esan digu kutxa erraldoi batean gorde beharko genituzkeela ikasleen lan horiek eta urte batzuen buruan ireki, ikasleek umeagoak zirenean egindako lanak ikusi ahal izateko. Ideia polita da”,* esan zuen Josuk. Oteizarekin bat dator, ume guztiak jenioak direla zioenean. *“Bost urtera arte izugarri sortzaileak dira umeak eta gero kamustu egiten ditu eskolak dohain horiek. Guk sormena bizirik mantentzeko asmatu dugu programa hau”,* esan zuen zuzendariak. Josu Reparazek bulegoan Oteizaren lan bat ikusi daiteke *“Lizarrako ikastolako haur eta gazteei bihotzez”* dioena, eta Nestor Basterretxearen beste bat ere bai.

### LA CALIDAD SE MIDE EN ORO

Lizarra ikastola se suma al grupo de élite de las ikastolas que han logrado el Q de Oro. Ha sido, por otra parte, la única empresa de Nafarroa que ha logrado tal galardón durante este año, por lo que ha recibido también el Premio Navarro a la Excelencia Empresarial, que concede el Gobierno del territorio. El director del centro y dos profesoras que lideran algunos de los procesos nos han explicado las etapas de la progresiva implantación del modelo en la ikastola y nos han hablado de sus ventajas. Lizarra ikastola, por último, desarrolla con sus alumnos un proyecto de creación artística que no tiene parangón en el mundo de la enseñanza.

### LA QUALITÉ SE MESURE EN OR

L'ikastola de Lizarra entre dans le club restreint des ikastola ayant obtenu le label de qualité Q d'Or. C'est par ailleurs l'unique entité de Navarre qui a reçu ce prix cette année, ce qui lui a également valu l'obtention du Prix Navarrais de l'Excellence Empresariale décerné par le Gouvernement navarrais. Le directeur du centre et deux enseignantes à la tête de l'initiative nous ont expliqué les différentes étapes menant à la mise en place du modèle et ses avantages. Enfin, l'ikastola Lizarra développe avec ses élèves un projet de création artistique sans pareil dans le monde de l'enseignement.



# Zatoz zientziaren aurpegi alaienaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza



## ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- 170 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko Simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta,...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren  
kutxaGunera**

### **Zientziaren kutxaGunea**

Mikeletegia Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia  
Tlf: 943 012 478. [www.miramon.org](http://www.miramon.org)  
[kutxaespacio@kutxagunea.org](mailto:kutxaespacio@kutxagunea.org)

zer nahi duzu bihar?